

### III. - Euskal Literatura-ren bilduma laburra

Beltran de Echauz (1556-1641)

Gizon aundi hau Baigorriko semea zen, AXULARR-en adiskidea, Baionan apezpiku zagoelarik lagundu zion GVERO haren liburua argitara ematen. Echauz-ek ala dio Axularrek bere Gomendiozko karta-n. "Zer ere eskiribatuko baita eskaraz, hura guztia Eskaldunen "buruzagi bezala, zuri dagotzula, zuri zor zaitzula, eta arrazoifnez orai "ere, zuri presentatu behar zaitzula."

Baionako apezpikutegi-tik pasatu zen Tours-eko arzapezpiku izatera, eta han hil 85 urteetan. Naiz idazlarien artean ez daiteken sar, ala ere gorde da bere gutun zaar bat euskaraz egina bere anaia bateri. Iduri zaigu on lizatekela emen agertzea, bai orduko euskara dokumentu gisa, bai eta euskaldun eredu harendako ezagutza xumea bezala.

*A Monsieur mon frere François de Echauz homme de chambre de monseigneur Dacqz a Bourdeaux.*

*Ene anaie iauna, hunekila hirur garrena dikezi ezkribatu deraudalada, batez ere arropaturik eztizit ukhen, zoñez pena baitut, zure berri hunen [onen=buenas] iakin gabiaz, bai eta halaber aitaren eta amaren-ek; heben ahal bezala nuzu hortik ialgiz geroz, zamariak pentsa araziten dirautazazu*

*nitien arropa guziak higatu baititut eta enizi pagatu nahi; conchit galdegin dirakozut eta erran dirautazu conchit [congiti] de gascon nahi dudanez, hura emanen deraudala; berze zerbizariak orok uzi dizie eta batre eztizi pagatu nahi uken,*

*segurazzen zitut ezi gizon terrible bat dela; gutun haur daramena etxeko zerbizari bat duzu, othoi egiten darauzut zure berri hunen [onen] eta aita amen-ek ezkribaziaz, zombaita gauza desirazen dudana lehiaz; eztaurauzut ezkribatzen luzazago,*

fin egiten dizit presenteko hunezaz yienkuari otoi egiten darako-  
dala zatuen osorik eta alegerarik berere gra. sainduian, eta ni ere  
halaber zurian, adio.

de s. pierre de oloron - noben - 8 garrenian - hurtez 1584.

Ene eskusak ethoi aitari eta amari igor izazu plazer ba duzu  
ahalik eta hobekiena.

Zure anaie leala eta hun [on] desirazen dutana,  
eta zerbuzu egitera obedienta ni nukezu.

Beltrán de Echaur  
A. I. ALDARATZAILLEA





# SARIKETA

Gipuzkoa'ko Diputazioaren "Julio de Urkijo" Euskal-filologi-Mintegiak sariketa bat ipintzen du, euskeraz egindako ekitaldi bakarreko antzerkientzat. Baldintzak auexek dira:

1) Gai bakarra: *Eguerriak*. Gai ori, ordea, derizkion bezala uki dezake egilleak, naiz erlijio-aldetik, naiz oitura eta jaiiei buruz, naiz beste nolanai. Luzera ere, ekitaldi bakarra izan ezkeru, egilleak berak erabakiko du.

2) Bi sari izango dira: 3.000 pesetakoa leena, eta 1.000'koa bigarrena.

3) Saritutako antzerkien jabe Mintegia izango da, eta argitaratzeko lana bere gain artzen du. Saririk jaso ez tutenak egilleari itzuliko zaizkio, eskatu bezain laster.

4) Idaz-lanak bidali bitez, oi den bezala, onako zuzenbide onetara: *Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", Palacio Provincial, San Sebastián*, datorren Abenduaren asiera baiño leenago.

5) Sariketa oni buruz edozein argitasun nai lukeanak eztu esandako zuzenbidera jo besterik.